

Lehiaketaren oinarriak:

2025 urteko udal egutegiko argazkiak hautatzeko lehiaketa

GAIA: Ura (eta beste) energia iturri (batzuk) Oñatin

Oñatiko Udaleko Euskara eta Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailek 2025eko Udal Egutegirako argazki-lehiaketa antolatu dute. Hona hemen oinarriak:

1.- Xedea.

Oinarri hauen helburua da argazki-lehiaketaren baldintzak arautzea, 2025eko udal egutegirako argazkiak hautatzeko.

2. Gaia. Ura (eta beste) energia iturri (batzuk) Oñatin

Ura antzinatik baliabide garrantzitsua izan da energia sortzeko. Makina bat asmakizun, azpiegitura eta eraikuntza egin izan du gizakiak uraren indarra baliatzeko. Oñatik urteetako esperientzia du arlo horretan, eta horren aztarna eta arrasto ugari ikus daiteke inguruetan. Aspaldikoak dira baliabide naturalak ustiatuz energia sortzeko martxan jarritako ekimenak, eta, gaur egun ere, Oñatiko ur-jauziak argindarra sortzeko baliabide garrantzitsu bat dira. Oñatiko energia berriztagarrien zati garrantzitsu bat, hain zuzen ere, ur-jauziek sortua da.

Uraren eta energiaren arteko lotura hori erakusten duten argazkiak hautatuko dira 2025 urteko egutegia osatzeko. Hau da, uraren indarra baliatzeko sortutako asmakizun, azpiegitura, paraje eta paisaien irudiak, iraganeak nahiz gaur egungoak.

Adibidez:

- Ura baliatzeko azpiegiturak eta makinak: ura hartzea, desbideratzea, garraiatzea, hoditeriak, hustubideak; makineria eta sorgailu elektrikoak, turbinak, lerro elektrikoak...
- Energia ekoizpenari lotutako paisaiak: errotak, argindar-etxeak, makina-etxeak, deposituak, ubideak edo kanalak, presak, ur-jauziak...
- Ura eta jolasak (sinbolikoak): urari bidea oztopatu eta eskuekin, adartxoekin edo harriekin presa txikiak egitea...
- Beste energia iturri batzuk: haizea, eguzkia, ikatza...

3. Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Oñatin erroldatutako edonork parte har dezake, adin mugarik gabe.
- Ezinbestekoa da argazkiak Oñatiko udalerrian ateratakoak izatea edo irudiaren kokalekua Oñati dela argi agertzea.
- Argazki zaharrak edo berriak izan daitezke, zuri beltzean nahiz koloretan.
- Argazkiak originalak izan beharko dute, aldezturik argitaratu gabeak edo beste lehiaketa batean saritu gabeak.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Argazki etzanak (formatu apaisatua) hobetsiko dira. Irabazleek 300ppp tamainan bidali beharko dute saritutako argazkia. Argazki zaharren kasuan, paperezko originala aurkeztu ahalgo dute.

4. Sariak

Jasotako argazkien artetik hamahiru aukeratuko dira 2025 urteko egutegia ilustratzeko (azaleko argazkia + hilabete bakoitzeko argazki bat). Azaleko argazkiak 150 euroko saria izango du eta gainerakoek 75 euro.

5. Argazkiak non eta nola aurkeztu.

Argazkiak aurkezteko azken eguna 2024ko urriaren 18a izango da. Lanak euskera@onati.eus helbide elektronikora bidali behar dira, edo HAZeko bulegoan aurkeztu. Argazkiarekin batera, datu hauek eman behar dira:

- Izen-deiturak
- NANA
- Telefono-zenbakia
- Argazkiaren egilea eta deskribapen laburra
- Argazkia zein hilabeteetan joango litzatekeen adierazi.

6. Epaimahaia

Epaimahaia udal ordezkari batek eta argazkigintzarekin, arte munduarekin edo komunikazio arloarekin lotura duten pertsonak osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

7.- Saritutako argazkien erabilera

- Saritutako argazkiek 2025eko Oñatiko egutegia osatuko dute. Oñatiko Udalak argazki irabazleak egutegia ilustratzeko erabili ahal izango ditu, eta, behar izanez gero, kopiatu edo egokitu ahal izango ditu, betiere argazki egilearen izena aitortuta.
- Parte hartzaileen erantzukizuna izango da hirugarrenen batek ez izatea aurkezten diren lanen gaineko eskubiderik eta irudi eskubideak direla-eta inolako erreklamaziorik ez aurkeztea.
- Argazkietan, lehenengo edo erdiko planoan, norbait azalduko balitz, pertsona horren baimen esplizitua aurkeztu beharko da, eta egileak izango du erantzukizuna edozein erreklamazioren aurrean.
- Argazkiak goiburu, esaera edo esaldi bat izango du euskaraz.

Abenduan argitaratuko da egutegia, eta 5.500 ale kaleratuko dira.

8.- Oharra

- Argazkien kalitatea edo kopurua kontuan izanik, epaimahaiak erabaki dezake 13 argazki baino gutxiago hautatzea. Kasu horretan, udala arduratuko da egutegia osatzeko falta diren argazkiak egiteaz.
- Lehiaketaren oinarrietako edozein ataletan gerta daitezkeen zalantza edo desadostasunen aurrean, antolatzaileak erabakiko du.
- Lehiaketa honetan parte hartzearekin, baldintza hauek erabat onartutzat ematen dira.